# KAIXO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA



## Urretxuko etorkizuna aztergai

## Los sábados por la noche también habrá policía local

## Asier Azarola, naturaren begia

94. ALEA
2008ko urtarrila




Ale honetako laguntzaileak:
*JESUS MARI ALBERDI*
*FCO. JAVIER AGUADO*
*KOLDO ARGANDOÑA*
*GORKA AZKARATE*
*IRENE CALVILLO*
*MIREN CASTILLO*
*JON CASTRILLO*
*ANA ISABEL ITURBE*
*IDOIA NARBAIZA*
*JABIER OTERMIN*
*MAITE QUEVEDO*
*KISKITZA UGARTEBURU*
*Mª CARMEN VIEDMA*
*ARGAZKIA ELKARTEA*

*Azaleko argazkia:*
*"Aizkorrira bidean,*
*kanal haundian gora"*
(Egilea: ASIER AZAROLA)

Kaixoko Argazkilaria:
LUIS ANGEL TELLEZ

Lege Gordailua:
SS/678/93

Konposaketa:
ERROTAPRINT

Inprimaketa:
Iparragirre, S.A.

Kopurua:
3.300 Ale

KAIXOk ez du bere gain hartzen derrigorrez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas*

Ez bazara Urretxun bizi
eta **KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu**, emen zure helbidea
943 03 80 88 telefonoan
edota kultura.ur@urretxu.net
helbide elektronikoan.
----

*Si no vives en Urretxu*
*y* ***quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón*** *,*
*déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net*

# aURKIBIDEA

KAIXO
*94. alea - 2008ko urtarrila*



3_URRETXUKO ETORKIZUNA AZTERGAI

7_GABONETAKO ARGIZTAPENA

POLICIA LOCAL SABADOS POR LA NOCHE_8



9_KALEKO IRITZIAK

10_URRETXU ZUMARRAGA ELKARLANEAN

BERDINTASUN PLANA_12



14_CSI URRETXU




EUSKARAREN ERABILERA MERKATARITZA GUNEAN_16



18_ELKARRIZKETA: ASIER AZAROLA

KAR RADIOAFICIONADOS_23



26_LABURRAK

28_KAIXO TXIKI



30_UDAL ZERBITZUAK

32_TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIAK

35_LEHIAKETAK



# urretxuko etorkizuna aztergai

**_Udalbatza berriak arau subsidiarioen onespen prozedura bertan behera gelditzea erabaki ondoren, hilabete hauetan herriak etorkizunean izango duen planeamendua aztertzen aritu da, batez ere ondorengo hiru gaien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko prozesu bat abian jarriz: ikastolaren proiektua, etxebizitza babestuen beharra eta industri zorua._**

***Kizkitza Ugarteburu***

Legealdi berriko udalbatzak, EAE-ANV, PSE-EE eta EB-Aralar alderdien botuekin arau subsidiarioen onespen prozedura bertan behera gelditzearen alde bozkatu zuen irailean. Lau hilabete eta gero, Iñaki Zabala alkatearekin hitzegin dugu gai honi buruz. Bere esanetan,"Urretxuko zorua beste modu batera antolatu nahi dugu, arauak berraztertuz."

Datozen zortzi urteetan indarrean egongo diren arauen analisia egin nahi dute berrikuspen espedientea udalera itzultzea erabaki duten hiru alderdi politikoek, bereziki, etxebizitza babestuen beharra, industri zorua eta ikastolaren eraikin berriaren proiektua aztertzeko asmoz.>



## Ikastolaren eraikina

Ikastolaren aferari dagokionez, Iñaki Zabala, Urretxuko alkatearen arabera, "ikastolaren proiektuan hezkuntzara zuzendutako lursailetan prezio libreko etxebizitzak egin behar ziren, eta ikastola berria kirol gune batean eraiki behar zen. Bestalde, etxebizitza guztiak prezio librekoak ziren. Azken finean, ikastola aktuazioo horretatik ateratako diruarekin ordaintzen zen eta guk hori ez dugu logikoa ikusten, operazio desegokia da gure ustez".

Urretxuko Udalak ikastolaren eraikin berriaren proiektua berriro aztertzeko konpromezua hartu du, Zumarragako Udalari ere hausnarketa horretan parte hartzeko gonbitea luzatuz. Dagoeneko hiru aldiz elkartu dira bi udaletako alkateak eta Urretxu-Zumarraga ikastolako ordezkariak gaia lantzeko. "Ikastolaren egungo nahiz etorkizuneko beharren inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko prozesu bat abian jartzea erabaki dugu". Bi udaletako teknikariak, arkitektoak, ikastolara gerturatu dira bertan dituzten arazo urbanistikoak eta ekonomikoak aztertu ondoren, txostena prestatzeko asmoz. Hurrengo pausua txostena ikastolan aurkeztea izango da, otsailaren erdialderako proposamen baliagarria izatea espero dute udaletxean.

## Trafikoa arintzeko bidea

Hiriguneko trafikoa arintzeko asmoz, aurreko arau subsidiarioak bide berria eraikitzea aurreikusten zuten. Gai honi buruz galdetu diogunean trafikoari dagokionez beharrik ez dela ikusten erantzun digu alkateak. Labeaga-Mundo Mejor-Lilibaso-Sorgintzulo eremu horretan irisgarritasun arazoak daudela adierazi digu Zabalak. Arazo hauek ekiditeko oinezkoentzat aukera mekanikoak aztertzen ari dira, nahiz eta espazio aldetik zailtasunak izan, agian, Labeaga areto inguruan kokatuz. Ibilgailuentzat, berriz, norabide bakarra ezartzea ere aztertzen ari dira. Santa Barbarara igotzeko dauden espaloiak zabalagoak egitea ere pentsatu dute.



Etxebizitza hutsak
*Viviendas vacias*

# Etxebizitza hutsak

Etxebizitzekin jarraituz, Udaleko Hirigintza sailak etxebizitza hutsen datuen eguneratzeari ekin dio. "Azken datuak duela 6-7 urtetakoak ziren eta ordutik etxebizitza asko desagertu egin dira, batez ere alde zaharrean. Lehendik eraikia dagoen zorua aprobetxatu daiteke, Lizeoko gunea eta Rodrigezen etxea, adibidez," dio alkateak. Irimoko zonaldean eraikitzea aurreikusita dituzten 500-600 etxebizitzekin nahiko dela uste du Zabalak. "Etorkizunean nolako herria nahi dugun adostu behar dugu. Dentsitate handia dugu eta lursail gutxi, ezin gara askorik hazi. Biztanle kopurua mugatzea beharrezkoa da."



## Etxebizitza babestuen beharra

Urretxuko Udalak, herritarrek etxebizitza babestuen inguruan dituzten beharrak ezagutzeko asmoz, ikerketa burutu du. 18 urtetik 35 urte bitarteko 300 gazteei galdeketa egin diete. Iñaki Zabala alkatearen esanetan galdeketa honek oso erantzun ona izan du eta bertan jasoko ditugun datuak herritarrek etxebizitzaren inguruan dituzten beharrak zeintzuk diren ezagutzeko balioko digute.

Inguruko herrietako gazteei ere aukera eman zaie ikerketa honetan parte hartzeko eta 8 lagun hurbildu dira udaletxera.

Industri zorua
*Suelo industrial*

# Industri zorua

Aurreko legealdian erabakitako arau subsidiarioetan "Irimoko zonaldea bakarrik industrigune gisa aurreikustearekin, esklusibitate horrekin ez gaude ados. Aisialdirako gunea, zabalpen eremua, hau da, herriaren luzamendua izatea gustatuko litzaiguke. Beste aukera batzuk aztertzen ari gara industri zorurako Azkoitirako bidea, adibidez "dio Zabalak.



Arau subsidiarioak bilduko dituen dokumentua martxorako prest legokeela dio alkateak. Ondoren, prozesu administratiboari emango zaio hasiera, hirigintzako batzordetik pasa eta osoko bilkurak onartu beharko ditu. Informazio publiko eta Eusko Jaurlaritzatik ere pasa beharko dira.









# el futuro de urretxu

## Proyecto de la Ikastola

*"En la operación que se preveía en las anteriores normas, en el terreno atribuido para fines educativos, se edificaban viviendas de precio libre y la nueva ikastola se construía en un espacio deportivo. La ikastola se financiaba con el dinero de dicha operación. Este proyecto no nos parecía lógico ni adecuado" afirma Iñaki Zabala, alcalde de Urretxu.*

*El ayuntamiento de Urretxu se ha comprometido a buscar alternativas para este proyecto, y para ello ha decidido incluir al ayuntamiento de Zumarraga para tomar parte en el mismo. Las dos corporaciones y la ikastola se han reunido en tres ocasiones para tratar el tema. Los técnicos, arquitectos de ambos ayuntamientos estudiarán los problemas económicos y urbanísticos del centro escolar, que serán presentados a la propia ikastola. En el ayuntamiento esperan que la propuesta esté lista para mediados de febrero.*

## Vial

*Al preguntarle sobre el vial, Iñaki afirma que no ven necesario su construcción con respecto al tráfico. Sin embargo, subraya que si han detectado problemas de accesibilidad en la zona de Labeaga-Mundo Mejor - Lilibaso - Sorgintzulo. El ayuntamiento, consciente del problema del espacio, está realizando un estudio sobre la posibilidad de construir alguna infraestructura mecánica para dar solución a este tema. En cuanto al tráfico en esta zona se está barajando la implantación de dirección única.*

## Demanda de vivienda de protección oficial

*El ayuntamiento de Urretxu ha realizado un estudio para conocer la demanda de vivienda de protección oficial. Para ello se ha encuestado a 300 jóvenes de entre 18 y 35 años. La encuesta ha tenido muy buena respuesta según nos ha indicado el alcalde. Los jóvenes de los pueblos cercanos, como Zumarraga han tenido opción a participar en la encuesta y han sido 8 personas las interesadas que se han acercado al ayuntamiento.*

## Viviendas vacias

*La Comisión y técnicos del ayuntamiento de Urretxu está actualizando los datos de las viviendas vacías existentes en el municipio. "Los últimos datos eran de hace 6-7 años y desde entonces han desaparecido muchas viviendas, sobre todo en el casco antiguo. Con las 500-600 viviendas que se construirán en la zona de Irimo creemos que será suficiente. Es necesario poner un límite al crecimiento de Urretxu" afirma Zabala.*

## Suelo industrial

*El actual consistorio no está de acuerdo en que la zona de Irimo sea exclusivamente para suelo industrial. "Nos gustaría que fuese una zona de ocio y recreo. En estos momentos estamos barajando otras zonas industriales, camino hacia Azkoitia por ejemplo.*

*El documento de modificación y revisión de las Normas Subsidiarias estará listo para marzo. A partir de entonces comenzará el proceso administrativo.*



# gabonetako argiztapena, energia aurrezpena

Joan den ikasturtearen bukaeran, eskolako Agenda 21-eko foroan bai Urretxu, bai Zumarragako ikasleek ura eta energía aztertu ondoren, beste proposamen artean, hauxe proposatu zieten bi herriko alkateei:

"Gabonetako argiak murriztu: eskola oporretan bakarrik piztu eta argi indarrean oinarritzen ez diren beste apaingarri batzuk jarri"

Bestalde, udalaren partetik honi buruzko sentsibilitate bat zegoela somatu zen, eta horren ondorioz pasa diren Gabonetarako ,zenbait neurri hartu dira:

- Kontsumo gutxiko bonbilak jarri . Figura batzuk ez dira jarri bonbila hauetarako prestatuta ez zeudelako.
- Argi figurak murriztea (%50).
- Ordutegia murriztea: Zumarragako udalarekin adostu egin den ordutegia hau izan da:

Santa Lutzi egunean piztu zen argiteria eta Errege egunean itzali egin da.

Egunero 18:00etan piztu dira argiak eta ordu desberdinetan itzali egin dira, adibidez, astean zehar 21:30etan, astebukaeratan 23:00etan eta asteburu berezietan piztuta egon dira gaueko 03:00ak arte, guztira 155 ordu piztuta egon da gabonetako argiteria.

Oraindik balorazioa egin behar da, baina atera daiteke lehenengo ondorioa oso inportantea da: JOAN DEN URTEKO KONTSUMOAREKIN KONPARATUZ, %80 MURRIZTEA LORTU DA. Dirutan ez da hainbesterako izango, Gabonetako argiak herriko argiteriaren portzentai txiki bat suposatzen dutelako baina bai gastatutako Kw.etan, horretan aurrezkia inportantea izan da.

Eskolako umeen eskariaren bigarren zatia, "argi indarrean oinarritzen ez diren beste apaingarri batzuk jarri" oso erreza izan da betetzea: Lorategiak apaintzen dituen enpresak Paskoako loreak landatu bait zuelako herriko lorontzietan. Hau ere datorren urteari begira aztertuko da.

# las luces de navidad y el ahorro energetico

*Al final del pasado curso, los alumnos participantes en la Agenda 21 escolar, después de examinar los temas del agua y la energía, propusieron lo siguiente a los alcaldes de Urretxu y Zumarraga respecto a la iluminación navideña:*

*"Reducir las luces de Navidad: encenderlas solamente en las vacaciones y poner otros adornos que no necesiten energía eléctrica."*

*Por otra parte, se constató desde el ayuntamiento que había cierta sensibilidad con este tema, por lo que se decidió tomar alguna medida ya para las pasadas fiestas Navideñas:*

- *Instalar bombillas de bajo consumo. Algunas figuras no se han podido poner, precisamente, porque no estaban preparadas para este tipo de bombillas.*
- *Reducir el número de figuras (50%)*
- *Reducir el horario. De acuerdo con el ayuntamiento de Zumarraga el horario ha sido el siguiente:*

*Se encendió el día de Santa Lucia, y se ha apagado el día de Reyes.*

*Todos los días se ha encendido a las 18:00h y se ha apagado a horas distintas, entre semana a las 21:30h, los fines de semana a las 23:00h y los fines de semana especiales a las 03:00h. En total las luces navideñas han estado encendidas un total de 155h.*

*Todavía habrá que hacer la oportuna valoración, pero por lo pronto se puede decir que EN COMPARACION CON EL CONSUMO DEL AÑO 2006 SE HA AHORRADO UN 80%.*

*En dinero no será tanto el ahorro si tenemos en cuenta que la iluminación navideña no es más que una pequeña parte del alumbrado, pero si es importante el ahorro en Kw. gastados.*

*La segunda parte de la propuesta de los escolares, "poner otros adornos que no necesiten energía eléctrica" ha sido fácil, ya que cuando se estaba estudiando qué hacer, la empresa de jardinería decidió plantar en las jardineras flores de Pascua. Este punto se estudiara con más profundidad de cara al año que viene.*

***M.ª Carmen Viedma***



# LOS SABADOS POR LA NOCHE TAMBIEN HAy POLICIA LOCAL

***Hace ya unos meses que la policía local de Urretxu presta sus servicios los fines de semana y, recientemente, el servicio se ha extendido a los sábados por la noche.***

Hasta hace unos meses Urretxu no contaba con presencia de la policía local durante los fines de semana, ya que el sábado al mediodía terminaban su servicio y no lo reanudaban hasta el lunes por la mañana. Por ello una de las primeras medidas de la nueva corporación en lo concerniente a esta competencia municipal fue ampliarlo al fin de semana. Tal y como nos decía el actual alcalde de Urretxu, Iñaki Zabala, no era muy normal que un pueblo del tamaño de Urretxu, cercano a los 7.000 habitantes, no tuviera ese servicio y que los vecinos, si tenían algún problema urgente, tuvieran que recurrir a la policía local de Zumarraga o a la Ertzaintza.

***“La policía local amplía su horario de fin de semana”***

El servicio de fin de semana se está prestando ya de esta forma: sábados y domingos de 7 de la mañana a nueve y media de la noche, con el refuerzo nocturno de las noches de los sábados, donde hay presencia de la policía municipal en las calles a partir de las 03:30. Para garantizar este servicio , se amplió la plantilla con tres nuevos miembros.

Uno de los principales motivos para haber hecho este cambio es el de intentar conciliar diversión y descanso nocturno. Es decir, que los vecinos de determinadas zonas, donde se concentra la actividad de ocio de este pueblo, puedan descansar. Existen unas ordenanzas municipales en materia de ruidos y horarios. Y las ordenanzas son para cumplirlas, nos dice el alcalde. De ese modo se verá si las actuales ordenanzas son válidas o si, por el contrario, hay que modificarlas.

***“Aplicarán los horarios y niveles de ruidos establecidos en las ordenanzas”***

La policía local se encargará de que dichas ordenanzas se cumplan, y hará que se respeten los horarios de cierre de los bares.
Tenemos que hacer que la diversión y el descanso sean compatibles, puntualiza el alcalde.>

***Idoia Narbaiza***

## urretxuko udaltzaingoaren ordutegia zabaldu egingo da

Lehenengo aldaketa udaltzainek asteburuetan lan egitea izan bazen ere, orain ordutegi hori zabaldu egingo da. Hemendik aurrera larunbat gauetan ere lanean ikusiko ditugu. Zarata eta ordutegien udal ordenantzak betearaztea izango da horren arrazoi nagusia. Herritarren aisialdia eta atsedena konpatiblea izan behar da, esan digu Iñaki Zabala alkateak, eta horretan arituko dira larunbat gauetan udaltzainak.

*Maite Quevedo, M.ª Carmen Viedma*



**JOSU AGIRRE**

Gernikako Arbola plazan bizi naiz eta badakit zer den zarata.Oso ondo iruditzen zait neurriak hartzea. Gainera, bazen garaia gai honekin norbaitek kargua hartzeko. Izan ere orain arte inork ez du ezer egin.

Orain ez naiz herrian bizi baina pentsatzen dut, leku gehienetan bezala, zarata ere problema izango dela Urretxun. Kutsadura akustikoa aztertzeko arazoa iruditzen zait.

**IKER SERRANO**





**M.ª CARMEN REJANO**

A pesar de que vivo en el centro me parece que es un pueblo tranquilo. De todas formas, si hay quejas, me parece bien que se tomen medidas.

## Uste al duzu Urretxu herri zaratatsua dela?, Zer iruditzen zaizu zarata kontrolatzeko neurriak hartzea?

*¿Crees que Urretxu es un pueblo ruidoso?, ¿Qué te parece que se tomen medidas para evitarlo en lo posible?*

Urretxu en si no es un pueblo ruidoso, el problema va por zonas. En la zona del centro es donde está el problema. Esos petardos que te echan a las 6 de la mañaña...

**MARGARI, CHUS eta LAURA**





**EMILIO SALVADOR**

Como pasa en todos los pueblos, la zona de los bares siempre es zona de ruido. Es normal que el Ayuntamiento quiera medir el ruido.

# urretxu zumarraga elkarlanean

***Urretxuko eta Zumarragako udalek aurrerantzean udalen kudeaketaren hainbat arlotan elkarlanean aritzea erabaki dute. Esan daiteke bi herriek trafiko edo kale garbiketa arloetan, adibidez, gune bakarra osatzen dutela. Hori horrela izanik, ez zeukan zentzu handirik bakoitza bere aldetik ibiltzeak, eta bi administrazioek erabaki dute kolaborazioaren bidea hartzea. Hasteko teknikoak jarri dituzte lanean, eta horiek hainbat arlotan eman daitekeen lankidetza aztertu dute. Alkateek ere azterketa bera egin dute.***

***Idoia Narbaiza***




Azterketa horren ondorioz 60 ataleko zerrenda bat osatu dute, eta horien artetik 13 aukeratu dituzte elkarlanaren abiapuntu gisa. Hurrengo pausua izan da elkarlan horri zer nolako egitura juridikoa eman. Balizkoak anitzak dira: mankomunitate txiki bat osatzea, partzuergo bat, edo bestelakoren bat. Egitura juridiko hori erabakitzea beharrezkoa omen da aurrera egin aurretik, eta hori aztertzen hasiko dira.

Bestalde, lehendik martxan dauden hainbat erakunderen eginbeharra aztertzea ere komeni da, bi udal administrazioek diotenaren arabera mankomunitatea egitura zaharra da, eta baliteke zenbait arlotan atzeratua gelditu izana. Izan ere, ura, zaborra, suhiltzaileak horiek guztiak mankomunitatetik kanpo kudeatzen dira, eta hutsik gelditu da erakunde hori. Era berean, lanaren bikoizketa ematen da. Hau da, lana bera bi aldiz egitea, lehenengo erakunde batek eta gero besteak.

> ***“Abian da Urretxuko eta Zumarragako udalen arteko lankidetza”***

Joan den urteko urrian emandako prentsaurrekoan aurkeztu zuten kolaborazioaren eta koordinazioa-




> **“13 arlo aukeratu dituzte ekimenari hasiera emateko”**

ren nondik norakoa. Aurkeztutako dokumentu horretan zehazten ziren elkarlanerako balizko hainbat alor. Adibidez, beste administrazioekiko harremanak eta bi administrazioek herritarrei eman beharreko informazioa, tasak, zergak eta udalek eskainitako zerbitzuen prezioak eta bestelakoak bateratzea. Bi herriotako udaltzainen artean izango den kolaborazioa ere azpimarratzekoa da; salaketak, prebentzioa eta antzerakoak daude batetik eta, bestetik, trafikoarekin lotutako hainbat gaien inguruko adostasuna ere. Kultur plangintza izango da elkarlanerako beste alorretako bat, kultur arloan kolaborazioa lehendik ere handia bada ere. Kale garbiketa, sustapen turistikoa, hizkuntz politika, eta abar dira landuko diren beste batzuk. Lankidetza hau abian dago eta horren eredu da kale garbiketarena. Udal bakoitzak bere aldetik zuten kontratua bukatzear zegoen, eta erabaki zuten kontzesio bakarra egitea, horrela enpresa berak garbituko ditu Urretxu eta Zumarraga. Ageri den bezala, asmo handiko ekimena da bi udalena. >

## colaboracion entre urretxu-zumarraga

Los ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga presentaron un acuerdo institucional de colaboración entre ambos municipios. Después de analizar aquellos campos en los que podía darse la colaboración y coordinación se han identificado 60 ámbitos posibles.

De entre todos ellos se ha decidido priorizar trece, entre los cuales podemos destacar la coordinación de ambas policías locales en cuanto a seguridad ciudadana, tráfico y movilidad; el programa de promoción sociocultural; equipamientos culturales; promoción lingüística; gestión de subvenciones; urbanismo; promoción turística, etc.

Mencionamos el de la limpieza viaria, que es uno de los que ya está en marcha. Los contratos de ambos pueblos finalizaban en fechas semejantes y decidieron presentar un único pliego y realizar una única concesión. Esta vez se ha pretendido que con este servicio la periferia esté más limpia, que sea este servicio quien limpie las pintadas, elimine los carteles, trabajos que hasta ahora realizaba la brigada. Antes en algunos lugares no estaba muy claro a cual de los dos pueblos correspondía la limpieza de determinadas zonas. Ahora ese problema está resuelto. El servicio de limpieza también se realiza los domingos por la mañana y Urretxu realmente necesitaba ese servicio en la zona donde se concentra el ocio. Es por lo tanto éste, un claro ejemplo de que la colaboración entre ambos municipios es posible.

# Berdintasun Plana: 2007 - 2011 bitarterako asmoa gauzatuz



***Joan berria den urteko azken asteetan izandako Udal Bilkura Osoan, aho batez onartu zen 2007-2011 bitarte aurrera eramango den Berdintasunaren Plana deritzan egitasmoa. Ongizate Batzordeburua den Marian Ostizarekin jarri gara harremanetan, plangintza horren nondik-norakoak zehatzago ezagutu ahal izateko. Hona hemen jakinarazi diguna.***

Ezer baino lehen, oso garbi utzi behar da Plan hau, aurreko legealdietan egindako lanaren ondorioa dela eta, era berean, orain arteko aplikazio esparrua zabalduz, hemendik aurrera, Mankomunitate mailan jorratuko den plangintza dela.

Hasiera batean diagnosi lan sendo bat egin zen lau herriotan. Alde batetik, geneukan benetako egoera ezagutzeko eta neurri berean ekintzaren abiapuntua zein izan zitekeen definitzeko. Lan horren ondorioz Plan hau prestatu zen Mankomunitate osoaren mailan aurrera eramateko.

Ondoren, lau udaletako nolabaiteko kontsensua edota konpromisoa jaso beharra zegoen. Horrela, eta Urretxuari dagokionez, Berdintasun Plana joan den azaroan egindako Udal Plenoan onartu zen aho batez. Beraz Plana abian jartzeko unea iritsi da. Eta horretarako, hau guztia bideratzeko, Mankomunitate mailan teknikari bat dago kontratatua. Diagnosian ere parte hartu zuena eta gaur egun, bereziki, koordinazio eta aholkularitza lanak betetzen dituena, teoriatik praktikara nolabaiteko zubia eginez, aurreikusitako prozedura mankomunitate mailan nahiz herri bakoitzean nola gauzatu behar den proposatuz.

2007 eta 2011 urte bitarterako adostutako plangintza honen hasierako urratsa sentsibilizazio kanpaina baten bidez emango da. Erabat harrituta geratuko omen ginateke diagnosi lanean jasotako datu zehatzak ezagutuko bagenitu. Agian, jasotako heziketagatik edota horrela jokatzen ohitu garelako baina, egia da, behin baino gehiagotan ez garela jabetzen gure ondoan ematen ari den berdintasunaren aurkako gertaera edo inkluso guk geuk ere, askotan, beste sexuarekiko, maila handiagoa ala txikiago batean, mesprezuzko jarrera geureganatzen dugu guztiz normaltzat ustez.

Ezinbestekoa ikusten da beraz, sentsibilizazio aurreko lan hori egitea, zenbateraino zuzen jokatzen ari garen jabe gaitezen. Esan beharra dago ere, Urretxuren kasuan besteak baino zerbait aurrerago gaudela. 2001. urtetik Emakumeen Kontseilua dugu eraturik eta orain arte egindako oinarrizko lana ezik, urteotan jasotako esperientzia ere, guztiz baliagarria izango da Plan berri hau martxan jartzeko. Kontseilu horretan alderdi politiko eta Mairi, Berdin do eta Eraldatzen elkarteetako ordezkariak dira partaide nagusiak eta Urretxuri dagokionez, hortik bideratuko dira aurrera eramango diren ekintza guztiak, beti ere, lehen aipatutako teknikariaren laguntzarekin.

Bere garaian Emakumeen Kontseilu hori eratzeari esker, Urretxun aspalditik indarrean dugu, Udal mailan eta Ongizate Batzordetik bideratuta, tratu txarrak antzemateko prozedura bat, non zerbitzura hurbiltzen diren emakumeen egoera ondo ezagutzen, eta kasu bakoitzak behar duen irtenbidea bilatzen, saiatzen dira. Plan berri honekin zerbitzu hori zabaltzea pentsatu da eta horrela, azaldutakoaz gain, Mankomunitate mailan nolabaiteko zerbitzu juridikoa ere eskainiko zaie, eta abokatu batekin lehenengo kontsulta saioa, behintzat, ziurtatuko. Beste aldetik ere, pentsatuta dago tailer modura zenbait ekintza eskaintzea: autodefentsarako tailerrak, e.a.

Baina ez da bakarrik tratu txarren ingurukoa, lana egitearen beharra sumatu den arloa, baita ere, eta azken garai hauetan asko hedatu den beste esparruko protagonistena, etxeetan pertsona gaixoen zaintzaz arduratzen direnen multzoa. Hemen ere, emakumeak dira gehiengoa eta laguntza eske hurbiltzen dira gero eta gehiago. Pentsatzen hasita erraz uler daiteke pertsona hauek, askotan sentitzen duten estresa, bakardadea, antsietatea edota depresioa. Hori dela eta, Plan berri honetan, beraiekin ere, lana egiteko protokolo bat eratu da non, besteak beste, beraiekin elkartu, dituzten behar espezifikoak ezagutu eta laguntza psikologikoa eskainiko zaie.

Planaren alde teorikoa dagoeneko lotuta dago, ez hainbeste ordea, hori gauzatzeko prozeduraren zehaztapena. Aurreikusitako zenbait ekintza Zumarragarekin batera antolatuko dira, beste batzuk, berriz, Mankomunitate mailan. Ez da ahaztu behar, zuzenean Plan honen eragileak izango direnak ere, prestatu beharko direla eta hauei zuzendutako formakuntza ikastaro bereziak antolatu beharko dira. Planaren abiapuntuan gaude. Kontzientziazio fase hau egitasmo orokorrago baten abiapuntua da; udaletxe barruan ere esparru guztietara iristeko asmoa dago: kulturara, hirigintzara,…, baina momentuz giza ongizatera mugatuko dira; ondoren, poliki-poliki eta helburuari eutsiz, guztietara helduz.>

***Jon Castrillo***




# plan de igualdad 2007-2011

El pasado mes de noviembre en sesión plenaria del ayuntamiento, se aprobó por unanimidad el Plan para la Igualdad 2007-2011, propuesto por la Concejalía de Bienestar Social.

Se trata de un plan que ya venía elaborándose desde anteriores legislaturas y que por fin se ha visto concretada en forma y tiempo.

Se partió de un primer estudio de diagnosis, para conocer con detalle la situación en la que nos encontramos los habitantes de la Mancomunidad en cuanto al cumplimiento de los niveles de igualdad de trato entre nosotros.

Urretxu ya contaba desde hace varios años con un protocolo para la atención de las urretxuarras víctimas de maltrato doméstico, donde se les apoyaba en la búsqueda de la solución más adecuada para su caso concreto. Este servicio se verá ahora ampliado a nivel de Mancomunidad, con la oferta de un apoyo jurídico mediante la concreción de una primera consulta con un abogado especialista en el tema. También están pensados diversos talleres de autoayuda en el que se incluye un primero de autodefensa.

Otro colectivo también objetivo de una ayuda especial, será el formado por todas aquellas personas encargadas del cuidado de algún familiar enfermo, que por su labor sufren continuos estados de soledad, estrés, ansiedad y depresión.

Aunque la parte teórica ya está bien establecida, no lo está tanto, sin embargo, la parte práctica. Es un Plan a cuatro años vista que como punto de partida tendrá una campaña de sensibilización que próximamente se hará efectiva entre nosotros.

Un Consejo de mujeres, que viene trabajando desde el año 2000, con representación de los diversos partidos políticos y de las asociaciones Mairi, Berdin do y Eraldatzen, será el motor principal encargado de hacer realidad este Plan, siempre bajo la dirección y tutela de una técnico que realizará tareas de organización y coordinación entre los cuatro ayuntamientos.



Foto de William L. Petersen sacada del archivo del Goierri (1974)

# CSI URRETXU: Buscando el rastro de Grissom



Valentin Berrio-Otxoa

***¿Se acuerdan de Grissom, el policía de la serie CSI Las Vegas emitida en Tele5? ¿Sabían que hace unos años venía a Urretxu a jugar al baloncesto? Pues hay varios vecinos que sí lo recuerdan, y uno de ellos es Valentín Berrio-Otxoa. Con èl hemos charlado sobre esta curiosidad y esto es lo que nos ha contado.***

WILLIAM L. PETERSEN, que así es como se llama el agente Grissom, nació en Chicago en 1953. En 1974, a través del contacto de Jon Oñatibia que vivía en EEUU, vino con un grupo de jóvenes estudiantes como él a la Universidad de Oñate, centro que gozaba de un gran prestigio. Jon Oñatibia era hijo del médico urretxuarra Bernardo Oñatibia, y ejercía como representante del Gobierno Vasco y de la cultura euskaldun en Nueva York. El propiciaba encuentros entre americanos y vascos, y de ahí surgió el viaje de los estudiantes a Oñate. No es de extrañar que la noticia de que un grupo de jóvenes americanos estuviese en Oñate corriese como la pólvora, y así llegó a los oídos de los responsables de la sección de baloncesto del Goierri. En aquél momento el equipo necesitaba un segundo base, y ¿qué mejor que un americano para cubrir tal vacante? Así que, ni cortos ni perezosos se presentaron en Oñate y William les dijo que sí, que él estaría encantado de jugar en el Goierri.

Los días de entrenamiento o partido, allí iban a buscarle Antón Rodríguez y Valentín. William sólo hablaba inglés y se comunicaban por señas. Era un buen jugador y el Goierri le quiso fichar, pero al pertenecer el equipo a la categoría nacional no podía fichar extranjeros. Era un buen compañero y le encantaban las sidrerías…. y fumar. Era un fumador empedernido. Sin embargo no le gustaban las angulas (eran los tiempos en que aún se podían comprar angulas) ni los chipirones.

En aquel curso se casó en Oñate con la que fue su primera mujer, y algunos del Goierri, entre ellos Valentín, estuvieron en el acontecimiento.

Pasó un año en Oñate (el curso 74-75) pero todavía de vez en cuando viene a visitar a los amigos que se quedaron a vivir aquí, ya que se casaron con mozas oñatiarras.

Dice Valentín que William comentó en alguna ocasión que su afición al teatro y a ser actor le nació en Oñate, al interpretar a Hamlet en una representación de estudiantes….. Será o no será, he ahí la cuestión>

***Irene Calvillo***

## GRISSON-EN AZTARNAREN BILA

William Petersen, Tele 5-ko CSI telesail famatuko Grisom poliziarena egiten duen aktoreak badu loturarik Euskal Herriarekin eta gurekin ere bai. 74-75 ikasturtean Oñatin aritu zen ikasten eta Goierri saskibaloi sailak proposatuta, Goierri taldean jokatu zuen denboraldi hartan. Valentin Berrio-Otxoak gogoratzen duenez, oso jatorra zen, sagardotegiak oso gustukoak zituen eta erretzea ere bai. Oraindik ere tarteka hurbiltzen omen da bisitan Oñatira, hemen bizitzen gelditu ziren lagun batzuk ikustera. Aktorea izateko grina ere hemen piztu omen zitzaion, Hamlet pertsonaia egiten…. Hala ote da?





# urola garaiko merkataritza guneetan euskararen erabilera sustatzeko plana

**_2006. urteko udaberrian Urola Garaia Mankomunitateak eskualde osoko merkataritzaren arloan euskararen erabilera sustatzeko plana jarri zuen martxan, horren kudeaketa lana EMUN enpresaren esku jarriz._**

Diagnostikoa egitea izan zen lehen urratsa, eta ondoren, bi urterako diseinua planifikatzea.

Legazpiko Ilinti eta Urretxu-Zumarragako Bitartean merkatari elkarteak, UGGASA, Urola Garaia Mankomunitateko ordezkariak, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako euskara zerbitzuak eta EMUN Kooperatiba Elkarteko teknikariak izan ziren partaide planifikazio prozesu horretan.

Ondorioz, 2007. urtean zehar hainbat ekintza garatu dira aipatutako planaren baitan:

- Hasiera batean eskualdeko 45 dendariri egin zitzaien eskaintza; horietatik 30 bat dendarik baiezkoa eman zutenean, hamabostean behin elkartu izan dira kafetxo baten aitzakian; kafe taldeak deitu izan zaie.

- Bestalde, udaletako euskara zerbitzuek zerbitzua denei eskaintzeaz eta informazio puntu egokiak bilatzeaz arduratu dira, baita dirulaguntza zuzenak hobetzeko aukerak aztertzeaz ere.

- Hilabeteak aurrera egin ahala, merkatari eta teknikarien arteko komunikazioa askoz hurbilago eta errazago ematen zela zirudien. Kontuan hartu beharrekoa da teknikariak ere estreinakoz ari zirela esparru berrietan barrena murgiltzen, eta esan beharra dago, oro har, oso gustura daudela plan honek hartu duen norabidearekin eta egindako ibilbidearekin.

- Horrela, bada, maiatzean kartelak egiteko saio praktikoak eskaini zizkieten dendariei, eta horren aurretik, ordenagailuz aritzekoak.

- Uztailean, inprenta, grafikagintza eta serigrafietara jo zuten teknikariek, euskararen onurak azpimarratu eta lankidetza eskaintzeko asmoz. Azken finean horiek guztiek efektu biderkatzailea dute orokorrean gizartean eta lan munduan, edo kasu honetan, merkatariengan.

- Irailean saio praktikoak eskaini zitzaizkien berriz ere dendariei, oraingoan errepaso eta jarraipen gisara.

Eta ikasturte berriaren hasierarekin batera, kafe talde berriak osatu ziren.

Amaitu berria den urtean zehar egindako guztia gogora ekartzeko, eta antolatutako ekintzetan partaide izan diren merkatariei esker ona adierazteko eta errekonozimendu publikoa eskaintzeko, ekitaldi bat egin zen joan zen abenduaren 4an, Zelai Arizti kultur etxean. Bi udaletako ordezkariek diplomak banatu zizkieten 2007an euskararen aldeko ahalegin berezia eta plan honen barruko ekintzekin bat egin duten dendariei. Hain zuzen ere honako hauei:

**LEGAZPI**
- ALGAR elektrizitatea
- ALKAIN elektronika
- APATXO liburu-denda
- ITZIAR belar-denda
- KIXKA osagarriak
- KOROSTI kafeak
- LASANDU parafarmazia
- LOTERIAK
- MIRENTXU mertzeria
- POXPOLIN ume-jantziak

**URRETXU**
- ARGIZTI optika
- BERRIKI jantzi-denda
- IMAJIN estetika
- KUTTUN mertzeria
- MIRENTXU mertzeria
- XARMANKI estetika

**ZUMARRAGA**
- GARBIÑE tindategia
- IRAETA estankoa
- IZAGIRRE janari-denda
- KIZKITZA oihal denda
- KUX-KUX ume-jantziak
- LANBROA belar-denda
- SALEGI harategia
- URKI liburu-denda

## 2008rako lan ildo nagusiak

Bestalde, 2008. urteko plangintza zehaztuta dute teknikariek eta aukeratuta dituzte lan ildo nagusiak:

1. Iaz bezala, aurten ere merkatariekin sortutako taldeak izango dira bizkar hezurra. Horretarako beste erreferentzi talde batzuk sortuko dira.

2. Sarritan zaila gertatzen da supermerkatu handiekin eta frankiziekin lan egitea. Aurten saiakera berezia egingo dute teknikariek beraiengana hurbildu eta elkarlanean euskarari gune horietan ere bultzadatxo bat emateko.

3. Mintzalaguna izango da beste ildo berrietako bat. Merkatarien arteko mintzalaguna izango da.

4. Horiekin batera beste hainbat ekintza eta zerbitzu garatzen jarraituko dute euskara zerbitzuetatik: itzulpen eta zuzenketa zerbitzua, kartelgintza, aholkularitza, dirulaguntzak hobetzeko ahalegina, kanpainaka ekimen bereziak sortzea, ikastaroak,...

Beti ere hasieran markatutako helburuak ahaztu gabe:

1. Euskararen erabilera handitu: bai zerbitzua ematerakoan eta baita paisaian ere

2. Motibazioan eragin: merkatariak elkartu, elkarrekin gauza asko egin daitezkeela sentiarazi, euskararen onuretaz jabetu, ...




Hori guztia, noski, merkatariekin eta merkatarientzako da; hortaz, beraien parte hartzea da planaren oinarria.>

***Jexus Mari Alberdi***



# ASIER AZAROLA, naturaren begia

*Hiru mila metroko mendiak igotzea zen, 1994 urtearen bueltan, herriko mendi taldearekin Piriniotara joaten hasi zen gazte talde baten ametsa. Asier Azarola, tartean. Berak, ordea, Piriniotako paisai ederrak argazki kameraz hilezkortzea nahiago zuen, gailurrak poltsikoratzea baino. Nekez soma zitekeen, orduan, gerora hamaika sari jasoko zuen argazkilari baten lehen urratsak zirela orduko ibilera baldar haiek. Bere aitari kamera lapurtuz ametsak ehizatzera jo zuen Asier Azarolaren lehen urratsak.*



**nortasun agiria**

*Izen-abizenak:*
***Asier Azarola***

*Adina:*
***32 urte***

***Argazkilaria***

# kate motzean

***Zenbat kamera dauzkazu?***
*Bi, Nikon etxekoak. Horrez gain, hiru objektibo (bi angular eta teleobjektiboa).*

***Argazkiak ateratzeko gustuko hiru leku?***
*Bardeak neguan, Urbasa udazkenean eta Pirinioak udan.*

***Argazkiak ateratzeko Urretxuko gustuko lekua?***
*Irimo udazkenean.*

***Zenbat argazki aterako zenituen 2007an?***
*100 karrete inguru.*

***Zer behar du argazki batek lehiaketa batera bidaltzeko modukoa izan dadin?***
*Teknikoki ondo ateratakoa izateaz gain (enkuadrea, argia eta abar) lehen bistadizora atentzioa deitzea.*

***Non izan zara urrunen argazkiak ateratzen?***
*Alpeak, Irlanda, Mauritania…*

***Argazkilariek beti daramazue kamera aldean.***
*Mendira noanean, bai, baina bestelako egunpasak egitera noanean-eta, ez.*

***Non atera duzu argazki gehien?*** *Urbasan, ziurrenik, txikitatik joan izan naiz bertara eta asko maite dut inguru hori.*

***Argazkilari bati gerta dakiokeen gauza txarrena?***
*Norabait joan eta eguraldi txarra egitea.*



***Nondik datorkizu argazkiak ateratzeko zaletasuna?***
*Betidanik joan izan naiz mendira; gogoan dut txikitan aitak nola uzten zidan bere kamera noizbehinka, argazkiak atera nitzan. Ondoren, 1994 urtean-edo, modu serioan hasi nintzen argazkiak ateratzen.*



***Nola lortu duzu maila horretako argazkilari izatera iristea?***
*Berez ez nuen argazkigintza ikasteko ikastarorik egin. Nire kontura hasi nintzen argazkiak ateratzen eta Ikatza argazki elkartean sartu nintzen. Astero elkartzen gara eta elkarri kritika konstruktiboak egiten dizkiogu. Horrela ikasi eta hobetzen da gehien, nik hala ikasi dut. Hala ere, komenigarria izan daiteke, oinarrizko kontzeptuak ikaste aldera, haseran ikastaroren bat egitea.*

***Zeri ateratzen dizkiozu argazkiak?***
*Naturari argazkiak ateratzea dut gustukoen, dela mendia, paisaiak, itsasoa, basamortua… Naturako argazkiak ez diren argazki oso gutxi ateratzen dut, konpromezu handiren bat badut-edo soilik, familiako edo lagunen bat tarteko. Azken finean, mendia eta argazkigintza dira nere zaletasunak, aisialdiko denbora gehien kentzen didatenak. Biak uztartzea ezinbestekoa zait, argazkiak atereaz gozatzen dut mendian eta alderantziz, mendira joanaz gozatzen dut argazkiak ateratzen.*

***Argazkigintza analogikoak digitalari eman dio azken urteotan paso.***
*Bai, hala da, baina nik ez dut momentuz argazkigintza digitalerako jauzia eman, eta ez dut, epe motzera behintzat, jauzi hori emateko asmorik, karreteak erostea eta errebelatzea neurrigabe garestitu ezean, behintzat. Nostalgiko xamarra naizela eman dezake, agian hala da. Bestalde, teknologia digitalarekin dena eginda dagoela uste da, baina argazkia atera egin behar da, bertan egon une aproposaren zain, enkuadrea egin…*

***Argazkilari arruntarentzat, ordea, argazkigintza digitala onuragarria denik ez duzu ukatuko…***
*Ez, noski. Argi dago argazkigintza digitalaren ailegaerak izugarri hedatu duela argazkilari arruntaren jarduna. Gaur egun jendea edozein lekutara doa kamera aldean duela. Zaletasun merkea da, behin kamera erosita ez dago beste gasturik (kamerak oso denbora laburrean teknologikoki zahartzen diren arren). Interneteko foroek, lagunekin argazkiak elkartrukatzeko edo telebista eta abarretara argazkiak bidaltzeko dagoen erraztasunak, argazkigintzarekiko zaletasuna areagotu dute.*



**Kamera digitalekin, gainera, nahi adina argazki atera daiteke, hanka sartzeko beldurrik gabe.**
*Hala da. Nire kasuan, ordea, ez dut uste kamera digital batekin argazki gehiago aterako nukeenik. Azken finean, momentu jakin baten bila noa, egoera baten bila, eta behin baldintzak egokiak direnean, berdin zait hiru karrete gastatuta ere. Hori bai, baldintzak egokiak izan ezean ez dut argazkirik ateratzen eta hori ez dut uste aldatuko litzatekeenik kamera digitala banu.*

**Oporretara hortik zehar joaten zaren aldiro, erreportaje dotoreekin itzuliko zara...**
*Ez pentsa. Ez naiz argazkiak parra-parra ateratzen dituen horietakoa. Udan Alpeetan eta izana naiz, esaterako, baina nik ez daukat oporraldiko diaporama bat egiteko adina argazki, gauza konkretuak soilik ateratzen baititut. Kasurik okerrenean, baldintzak txarrak direnean, gerta liteke oporraldia amaitu eta kamerako botoia sakatu gabe etxera itzuli behar izatea ere.*

**Gustuko baldintzen zain denbora luzez egoten direnetakoa zara, beraz.**
*Bai, hala da. Argazki txukunak ateratzekotan, denbora asko pasa behar da baldintza onenen zain. Piriniotako Vignemale mendiaren iparraldeko aurpegiari, esaterako, udako egun jakinetan gailurra gorritzen zaio egunsenti oskarbietan zenbait minututuz. Hiru aldiz joan behar izan naiz bertara fenomeno hori ateratzea lortzeko. Bertara joaten zara, egunsentia ez da nahi bezalakoa, ez da gorri jartzen, trasteak bildu eta etxera. Horrelakoa da argazkilariaren bizitza. Badu, neurri batean, mendizaleen jardunarekin parekotasunik. Mendizalea Vignemale igo nahian joango da bertara. Eguraldi ona egin ezean, gailurra poltsikoratu gabe itzuli beharko da. Argazki konkretu bat buruan duzu eta atera arte ez duzu etsitzen…*

**Pozgarria al da argazkiak ateratzea?**
*Bi poztasun une eman ohi dizkit niri, nagusiki, argazkigintzako jardunak: alde batetik, argazkia ateratzeko unea oso polita da, ordutan egon zara, enkuadrea eginda, tripodea jarrita eta kamera listo, bi minutu iraungo duen unearen zain, eta urduri jartzera ere heltzen zara unea iristean. Bestetik, argazkia proiektatu eta ondo atera dela ikustea oso pozgarria eta betegarria da.*

**Zure gustuko eremua natura dela jakinik, paisaia edo inguru ikusgarriren bat ageri da gehienetan zure argazkietan...**
*Orain arte paisaiak atera izan ditudan arren, poliki-poliki hasi naiz detaileengan erreparatzen, makro deritzan argazki horiek ateratzen, alegia. Azken finean, mendian zehar zabiltza eta aurkitzen duzun edozer gauza interesgarriri ateratzen diozu argazkia.*

**Urte osoan ateratzen al dituzu argazkiak?**
